

# Denbora-

## 1 Ezberdintasunak

Irudikoaren moduko zenbat izozki jan ote dituzue opor hauetan! **Ea bi irudi hauen artean dauden zazpi ezberdintasun topatzen dituzun.**




## 2 Aukeratu hitz zuzena

Eskolan hastearekin batera, hasi da Unai H hizkiarekin amesgaiztoak izaten. **Ea, lagundu iezaiozu hitz zuzena aukeratzen.**

## 3 Bikiak

Amaiurrek ezpata berezi bat erosi nahi du. Hona hemen dendan erakutsi dizkiotenak. **Bi berdin-berdinak direla ohartzen al zara?**





# - pasak

Erantzunak: 2.- Erdietsi, hordikeria, dohainik, erroitz eta halabeharrez. 3.- C eta F. 4.- Landare bat.

## 4 Lotu puntuak

Gurutzek opari eder bat egin dio amari. Zer den jakiteko, lotu puntuak, eta igarriko duzu.



## 5 Hitzekin jolasean

Hiztegia lantzeko ariketa dibertigarria proposatu die ikasleei Xabi irakasleak. Hitzak osatu behar dituzte, hizki hauek kontuan hartuta.

## Jolasa

### Kontuz, eraso!

Zuen taldea jokoaren eremutik botatzea beste helbururik ez du aurkako taldeak, beraz, erne ibili! Eta babestu baloien erasoetatik!

**1** Marraztu lurrean jokorako eremua klariona zati batekin edo, hondarraren gainean jokatu behar baduzue, makila batekin. Jokoaren eremuak lau gune angeluzuzen izan behar ditu (ikusi marrazkia). Banatu jokalaria bi taldetan.

**2** Jokoaren eremuaren erdialdeko hutsuneetako batean ezarri beharko du talde bakoitzak. Baloia jabe den taldeak hasiko du jokia. Helburua: aurkako taldeko jokalariren bat baloiarekin ukitzea. Aski da baloiarekin jokalaria ukitzea, ez diogu inori minik eman behar!



**3** Jokalariren bat baloiarekin ukitzen badute, aurkariak dauden ingurura joan, eta albo batean ezarri beharko du. Eremu horretatik bere taldekideei lagunduko die, baloiarekin aurkarietara erasotzen dieten garaian. Erdialdeko eremutik aurkari guztiak botatzea lortzen duen taldeak irabaziko du jokaldia.